


AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2023-11-24 / 796 ZENBAKIA / 19. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM



Garazi Redondo
Urnietako
KORRIKako
koordinatzaileari
elkarrizketa / 8

Hitzordu ugari
Andoainen eta
Urnietan, datozen
egunotan, azaroaren
25a aintzat hartuta / 14

Azaroaren 30eko
Greba Feminista
Orokorren
deitzaileei
elkarrizketa / 4



Iraganeko Andoain eta andoaindarrak, Basteroko argazki-erakusketan

Secundino Etxeberriaren aspaldiko argazkiak ikusgai dira, erakusketa-aretoan / 12



Erabili meloia

Ez egin erosketa oldarkorrik

Kontsumitu buruarekin

#KontsumitzenJakin

kontsumoBIDE
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

Euskadi, mapelena, bizi onarekin
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

f t i www.kontsumobide.eus



Jorge Segurado alkatea ekitaldira hurbildu ziren Aldundiko agintariei eta herriko eragileei azalpenak ematen. AIURRI

Elkarteen Etxea, Denda Berri zena, urnietarren eskura

Espazio "ireki, moderno eta funtzionala". Horrela definitu dute Elkarten Etxea. Zerbitzuz eta eragilez betetzen ari da, poliki-poliki. Aurreko astean, Gipuzkoako Foru Aldundiko goi mailako ordezkariak izan zen bertan

San Juan kalean kokatzen den eraikinak Urnietako gizarte-politiketako hainbat zerbitzu hartzen ditu; besteak beste, adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzua, zaintzaileentzako laguntza-taldea eta Aukerak Suspertzen ekimena, egoera zaugarrian dauden eta eskola-laguntza behar duten haur eta nerabeen arretaz arduratzen dena.

Bestalde, Elkarten Etxeak lan-espazio bat eskaintzen die herriko elkarteei, eta alde ho-

rretatik, dagoeneko, Denda Berri erretiratuen eta pentsiodunen elkarteak zein euskaltegiak bertan ipini dituzte beren egoitzak. Bagara talde feministak ere etorkizunean instalazio horiek erabiltzeko konpromisoa hartu du. Belaunaldien arteko harremanak eta erakundeen arteko lankidetzak sustatzea da 1.100.000 euroko kostua izan duen Elkarten Etxearen helburuetako bat.

Eider Mendoza Gipuzkoako Diputatu Nagusia Maite Peña

Zainketetako eta Gizarte Politiketako diputatua Urnietara hurbildu ziren ostegunean, instalazio berriak ezagutzera. Urnietako Udalaren aldetik zain ziztuzten Jorge Segurado alkatea, Consuelo Frutos Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi ahaldua, hiru alderdi politikoetako ordezkariak eta herriko hainbat elkartetako ordezkari gehiago.

Mendozak Elkarten Etxearen ezaugarriak goraiatu zituen. Azpimarratu zuenez, "belaunaldi artekoa, irekia eta diziplina



Bertan zirenek Aldundiaren eta Udalaren ordezkarien bisitaldia jaso zuten. AIURRI

anitzekoa da, eta Urnieta, lurralde osoa bezala, "urrats sendoak" egiten ari da gizarte-eremuan". Elkarten Etxeaz gain, Urnietak "epe ertain eta luzera, proiektu handiak, berritzaileak eta oso ilusionagarriak" dituela azpimarratu zuen, "persona bakoitzari behar duen laguntza, zerbitzuak eta zaintzak bermatuko dituen zaintza-ekosistema bat sortzeko". Gogorarazi zuen Udalak hasiak dituela Babiloniako lursaila Gipuzkoako Foru Aldundiari lagatzeko izapideak, "eskualde osoaren beharrei erantzun zuzenaren egoitza berri bat eraikitzeko".

Era horretan, erantsi zuen "Errekalden kokatuko diren etxebizitza sozialak eraikitzeko obrek ere aurrera jarraitzen" dutela. Azkenik, Eider Mendozak, Gipuzkoa "zaintza-eredu berri-rako trantsizioa betean" dagoela nabarmentzeaz gain Urnietan gauzatzen ari diren proiektuek "aldaketa sistemiko horri erantzuten" diotela adierazi zuen. Bere ustetan, proiektu horiek

"guztiz lerrokatuta daude zaintza-eredu berriarekin, zeinaren ardatzak baitira pertsonalizazioa, berrikuntza, komunitatearekiko lotura eta ebaluazioa".

Jorge Segurado Urnietako alkateak Aldundiaren laguntza eskertu ostean, udalak, urnietarrek gero eta zerbitzu hobek izan ditzaten lan egiten duela ziurtatu zuen. "Arreta berezia jartzen ari gara arlo sozialean eta zainketen arloan, horixe baita, zalantzarik gabe, demografiaren bilakaeraren ondorioz aurre egin behar diogun erronka nagusietako bat. Ziur gaude Elkarten Etxea mugimendu eta bizitza handiko gune bihurtuko dela, eta udalerriko toki erreferenteetako bat izango dela".

1.100.000 EUROKO KOSTUA IZAN DUTE URNIETAKO ELKARTEN ETXEA EGOKITZEKO LANEK



KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



GORA ETA BEHERA



Elkartasun-keinua

Udal Musika Eskolako Bandaren kontzertuan gertatu zen. "Our man in Paris" abestia jo aurretik, Mikel Emezabal zuzendariak Palestinako eta Israelgo musikari gazteak biltzen dituen West Eastern Divan Orchestra hartu zuen gogoan, eta azken aldia gertatzen ari diren giza sarraskien aurkako mezua zabaldu zuen. Abestian barrena, Bandako zenbait musikariek Palestinako bi bandera zabaldu zituzten.



AIURRI



AIURRI

GORA ETA BEHERA



Hainbat hilabetez soldatarik gabe

Correoseko garbitzaileak greba mugagabeen dira, eta kobratzea exijitzen dute: "Ez da posible langileak kobratu gabe egotea, Correos garbiketaren enpresari ordaintzen ari zaionean. Honen atzean erantzukizun politikoak beren gain hartu behar dituzten Correoseko arduradunak daude".



AIURRI

Anbulantziako langileen protestak areagotu dira

ELA, USO, LAB, UGT, CCOO eta ESK sindikatuetak langileen protestaldia ez da berria eta, akordiorik ezean, deialdi gehiago antolatuko dituzte. Osakidetzaen baldintzekin parekatzea eta erosteko ahalmena mantentzeko soldatak igotzea aldarrikatzen ari dira hiru egunetako greba deialdien bitartez. Urriaren 9tik 11ra egin zuten lehena, azaroaren 20tik 22ra bigarren greba-deialdia egiten ari dira eta egoera konpontzen ez bada, Gabonen atarian, beste bat deituko dute. Deitzaileek 1.800 langile ordezkatzeko dituztela adierazi dute. Joakin Larreta etorbideko ambulanzien egoitza pankartzeta eta afitzez beterik dago, egun hauetan. ELAk bere webgunean adierazitakoaren arabera, "sektoreko langileek aldarrikatu dute lan berdinari soldata berdina zor zaiola, eta osasun-zerbitzu publiko eta funtsezko baten azpikontratazioarekin amaitu behar dela".

www.aiurri.eus



- Iritzia
- Postontzia

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Aste bat falta da Greba Feminista Orokorra iristeko. Zein da Andoaingo lantaldearen aldartea?

Irune Gozalo: Nabaritzen da Greba Feminista Orokorra hurbiltzen ari dela. Aurreko larunbatean, eskuorriak eta txapak banatu genituen Goikoplaza aldean, eta Joakin Larreta etorbidean murala margotzen aritu ginen. Deialdia herrian gizarteratzen ari dela nabari dugu, baina oraindik ere deialdia tokiko merkataritzara zabaltea falta da. Taldeko kideak, behintzat, oso aktibo gabilta lanean.

Greba antolatzeke batzordean partaide ugari ikusten dira, Arrate pilotalekuko bilera-gelatik zabalduko irudietan.

June Igarategi: Nahikoa jende hurbiltzen ari da, bai. Batzordea mixtoa da, berez, eta gizonengana gehiago iristea nahiko genuke.

I.G.: Urriaren 25ean egin genuen lehen batzarra, Arraten. Eta, geroztik, bost bilera egin ditugu. Asteroko maiztasunari eusten diogu, eta hogeita hamar lagun oso aktibo ari gara lanean. Adin ezberdinetako kideak elkartu gara, eta motibazioz gainezka gaude.

Herria geraraztea da asmoa, ezta?

I.G.: Asmoa hori da. Badakigu pertsona guztien baldintzak ez direla berdinak, eta egun horretan ikusiko dugu den-denei greba egitea ezinezkoa zaiela. Zaintza.esparruko pertsonak ditut buruan. Asmoa greba egun osora luzatzea da.

Mahai-ingurua antolatu zenuten, Basteron. Eta solasaldi horretan zaintzari loturiko kasu errealei ahotza eman zenioten. Errealitate gordin hori azalerazteko asmo argia duzue.

I.G.: Garrantzitsua da zaintzaren esparruan murgilduta dabilzan pertsonak protagonista bilakatzeko. Batzuzentzat abstraktu samarra izan daitekeelako zaintzari lotutako lana. Grebaren muinari nola heldu ez dakienarentzat oso baliagarria izan da solasaldi hori antolatzea, eta lekukotza horiek entzutea.

Gazteak zarete biak, eta dinamika gehienetan adin beretsukoekin ari zarete jardunean. Oraingo honetan belaunaldi ezberdinetako herrikideak elkartu zarete. Nolakoa izaten ari da esperientzia hori zuentzat?

J.I.: Gure artean dinamika batzuk gauzatzera ohituta geunden. Belaunaldien arteko kontrastea

"Greba deialdia gizarteratzen ari dela nabari dugu"

IRUNE GOZALO ETA JUNE IGARATEGI ANDOAINGO GREBA DEIALDIKO PARTAIDEAK

Mugimendu feministako kideak dira biak, eta azaroaren 30eko greba-komitean parte hartzen ari dira. Datorren asteko hitzorduaren gakoak eman dituzte



Irune Gozalo eta June Igarategi, greba feminista orokorreko afitza eskuetan dutela. AIURRI

sortu da, bizitako esperientziak eta egoeraren gaineko ikuspegiak ezberdinak direlako. Interesga-

rria da hartu-eman horretatik ateratzen ari dena, eta oso aberasgarria guretzat. Batzuk eta

besteak, bakoitza bere atalaia-tik, elkar elikatzen ari gara guztiak.

I.G.: Belaunaldi ezberdinetako kideak elkartzea gutxitan gertatzen den zerbait da. Faltan bota dugu hori, orain arte. Erosoena gure albokoekin aritzea baita. Ibilbide bat duten pertsonen ekarpenetara eta ideietara zabalik egotea interesgarria iruditzen zaigu guri.

Adinean gora doazenek zuek duzuen freskura nabarmenduko dute, akaso. Eta zuek haiengatik zer duzue esateko?

I.G.: Gure artean gertatzen den bezala, helduagoen artean oso profil ezberdinak aurki daitezke. Erakusten duten indarrarekin eta gaitasunarekin harrিতuta naukate. Zer nolako indarra eta aktibazio-maila erakusten duten! Guk genuen motibazioan eragin dute, onerako.

Beraz, entzundakoagatik, greba bezain garrantzitsua izaten ari da egun horren antolatzea prozesua.

I.G.: Hori zen helburua. Prozesu baten gisan ikusi nahi dugu greba.

Zaintza-lanen baldintza eskasak salatu nahi dira, greba honen bidez. Eta, bide batez, etxe barruko zaintza emakumeengan ematen ari dela salatuko da. Errealitate hori gertutik ezagutzen al duzue?

J.I.: Prekarietatea agerikoa da, zaintzarekin zerikusia duten lanbide horietan.

I.G.: Nork zaintzen zaitu zu? Nor zaintzen duzu zuk? Nork zaintzen du nor, zure familian? Dinamika honi esker, nork bere etxe barruan duen dinamika berrikusteko aukera du.

Azaroaren 25era begira, zer antolatu duzue?

I.G.: Egun seinalatua da, baina ezin dugu greba deialditik bereiztu. Ez da soilik indarkeria matxistaren aurka egiteko eguna izango. Azaroaren 30erako deitu dugun greba feminista orokorraren muinarekin uztartu nahi dugu.

Eguerdiko 12:00tan Goikoplazatik aterako gara, eta askotariko zaintza-espaziotara hurbilduko gara. Hitzordua kontzentrazio batekin amaituko da, Goikoplazan bertan.

Grebari begira zer adierazi nahiko zenukete, azkenik?

I.G.: Denon ardura da zaintza kolektibizatzea, denori eragiten digulako. Familian nahiz gertuko egunerokoan, denok zeharkatzen gaituen arazoa da. Ardura, beraz, denona da. Grebara batzeko arrazoi nahiko badoa uste dugu.

Proposamenen alde egiteko garaia da

Partaidetzako aurrekontuen bigarren fasean hamalau egitasmoren artean botoa emateko aukera dago. Epea hilaren 30ean amaituko da. Boto gehien jasotzen dituzten aukerak 2024ko Udal aurrekontuen partidatan txertatuko dituzte



Hautes-ontzietan botoa emateko aukera dago, hurrengo azaroaren 30a bitarte. AIURRI

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Bigarren fasea abiatu da, eta egunotan herritarrek hamalau proposamenen artean hiru aukeratu ahal dituzte. Dagoeneko, hautes-ontziak zabalik daude,

aurreko faseko toki berdinetan. Besteak beste, Udaletxean, Bastero Kulturgunean, Allurralde kiroldegian, Anbrosia Olabide eraikinean, Udal Liburutegian... Horiek dira, akaso, herritarren

boto gehien jasotzen duten hauteslekuak. Edizio honetan, gainera, informazio-puntua jarri du Udalak. Kanean bertan eskaintzen den zerbitzua da, eta Goiatz Salvador herrikidea dago

postu horretan. Postua ibiltaria da, dena esatera. Aurreko larunbat goizean, Zumea plazan jarri zuten postua, eta, asteartean, Eskola plazan. Kontua da eguraldia oso txarra zela, eta bigarren eguneko informazio-puntua Eskola kaletik Juanita Alkain plazatxora eraman zutela.

Dinamizatzailereen lehen sentsazioak

Goiatz Salvador dinamizatzaileari bigarren fase horren hasieraz galdetuta, honako hau egin zaio deigarria: "Informazio-puntua jarri eta botoa etxetik zekarten hainbat herritar hurbildu zaizkit. Informazio-puntua horretarako baliatu dute. Alde batetik, horrek esan nahi du horiek behintzat jakin badakitelatela zertan den partaidetzako aurrekontuen prozesua". Zalan-tza eta ezjakintasun gehiago topatu zuen lehen fasean, Aiurriri aitortu dionez. Egun haue-tan, hurbildu zaizkion herritarrekin hizketan, ez du kritikarik edo eragozpenik topatu.

Bide batez, esan, kanean postua ipiniko duten hirugarren eta azken eguna ostegun arratsaldea izango dela. Hots, azaroaren 23an Goikoplazan, arratsaldeko 17:00tatik 19:00tara. Hori, informazio-puntu ibiltariari dagokionez. Bada prozesuaren dinamizatzailereak nabarmendu nahi duen beste arloa. Hain zuzen, partaidetzarena: "Lehen egunetik hasita hainbat boto aurki

daitezke herrian barrena jarritako hautes-ontzietan. Lehen egunetan, herritar-kopuru handi samarra hurbildu da botoa ematera. Lehen fasearekin alderatuta, lehen erreazioa askoz lehenago ematen ari da. Ikustea besterik ez dago honezkero dozenaka boto aurki daitezkeela Bastero Kulturgunean, Udal Liburutegian edota Udaletzeko Ataria zerbitzuaren ondoan.

Salvador partaidetzako aurrekontuaren dinamizatzailea da. Hari egokitu zaio ikastetxeetara egitasmoaren xehetasunak azaltzea, informazio-puntu egotea eta paperean nahiz internet bidez jasotako eskaera guztiak jasotzea eta antolatzea. Proposamenak aztertu eta aukeratzeko batzorde teknikoan parte hartu du, baina ez du baloraziorik eta puntuaketakarik emateko aukerarik izan. Ez baita hori bere zeregina. Udal teknikariek balioan jarri dituzte lehen fasean iritsitako proposamen guztiak, eta beren irizpideen arabera aukeratu dira finalera iritsitako 14 proposamenak. Alderdi guztietako ordezkariak prozesua gainbegiratzeko aukera izan dute, hasiera-hasieratik.

AZAROAREN 30ERA BITARTE PARTE HARTZEKO AUKERA IZANGO DUTE ANDOAINDARREK

PARTAIDETZAZKO AURREKONTUA 2024 BIGARREN FASEA MARTXAN DA

Zuk erabakiko duzu
250.000 euro
zertan inbertitu.

**PARTE HARTZEKO
AZKEN EGUNA:**

Azaroak 30, osteguna.



ANDOAINGO UDALA



Udal Musika Eskolako ikasle gazteak saria lortu dute Zumaian

Udal Musika Eskolan, Claudia Alduncin irakasle duten Jon Loiarate, Ekhi Ugalde, Nalia Martin eta Leo Ballesteros klarinete-joleek lehen saria irabazi zuten 8-12 urte bitarteko mailan, Zumaian ospatu zen Klarinete Laukoteen Kontzertu-Lehiaketan. 1.4. Quartet izeneko laukoteak Sarri sarri (Kortatu; Mikel Emezabalena moldaketekin) interpretatu zuen.



UDAL MUSIKA ESKOLA



Udal ordezkariak eta ikastetxeetako kideak, pleno aretoan. UDALA

Giza Eskubideen defendatzaileak Andoainean

Giza Eskubideen Defendatzaileen babesarako euskal udal sarea den Herri Babesarearen eskutik izan ziren udaletxean, eta Guatemalako eta Honduraseko egoera salagarriak azaldu zituzten bertan. Ezker, eskuin: Maria Velasquez (Guatemala), Fernando Vaquerizo (MunduBat), Stranler Lopez Rivas (CNA, Kolonbia) eta Tommy Morales (Honduras). Xehetasun gehiago aurki daitezke Aiurri.eus webgunean.



AIURRI

Udal adierazpena, haurren eta nerabeen eskubideen egunean

Astelehen goizean, herriko ikastetxeetako ordezkariak izan ziren pleno aretoko protagonista nagusiak

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udalak, haurren eta nerabeen eskubideen bermerako konpromisoa berretsi du. Xedea argia da: haurtzaro eta nerabezaro on bat izateko eskubideak bermatzea. "Aitortza honetan, haur eta nerabeak entzunak izateko eskubidea, ingurune seguruan bizitzeko eskubidea, haurra eta nerabea izateko eskubidea, oinarrizko zerbitzuetarako eskubidea eta baloratua eta errespetatua izateko eskubidea artikulatzea beharrezkoa izan da, betiere haur eta nerabeekin eta herriko hainbat gizarte-eragileekin batera. Beraz, gaurko egunean haur eta nerabeen eskubideen aldeko aldarrikapena egin nahi dugu".

Hezkuntza-komunitateko ordezkariak pleno aretoan izan ziren, astelehen goizean. Egun seinalatua zen, haur eta nerabeen eskubideen nazioarteko eguna ospatzen baitzen.

Hezkuntza-komunitateko ordezkariak pleno aretoan izan ziren, astelehen goizean. Egun seinalatua zen, haur eta nerabeen eskubideen nazioarteko eguna ospatzen baitzen.

1973an jaiotakoen bazkaria, Gaztañaga sagardotegian

Urrian elkartu ziren berrogeita hamar urte bete dituzten andoaindarrak, lagunarteko bazkarian

Erredakzioa ANDOAIN

Adin batera iritsita, ohiko bilakatzeko ari dira urte berean jaiotakoen ospakizunak. Urrian, esaterako, 1973an jaiotakoen bilkura egin zuten Andoainean. Buruntzako Gaztañaga sagardo-

tegia bazkaria antolatu zuten eta, argazkian ikus daitekeenez, dozenaka lagun elkartu ziren. Bizitzak joan-etorri asko eragiten dituen arren, urte berekoak elkartzeko nahikoa arrazoi izan zen bazkarira hurbildu zirentzat.



Dozenaka lagun elkartu zen bazkarian. FERNANDEZ



Belaunaldi ezberdinen bilgune bilakatu zen ikastolako bazkaria. IKASTOLA

Aita Larramendi ikastolaren urteurreneko bazkaria

300 lagun elkartu ziren Goikoplazan, ikastola abian jarri zeneko hirurogei urteak ospatzeko

Erredakzioa ANDOAIN

"Egun zoragarria", halakoxea izan zen ikastolako kideentzat aurreko larunbateko bazkaria. Ibilbide luzea osatu du Andoaingo ikastolak, eta hitzordua belaunaldi ezberdinetako ikasleak eta irakasleak elkartzeko balia-

garria izan zen. Bingo musika-tuarekin luzatu zen arratsaldea. Josu Lekuona irakasleak eta lagunek, azkenik, euskal kantak eskaini zituzten. Ospakizunak ez dira amaitu. Igande honetan, esaterako, Belkoain aldera mendiri-irteera antolatu dute.



"Egun zoragarria", holakoxea izan zen bertan izan ziren gehienentzat. IKASTOLA

Irunberri elkartearen XXV. urteurreneko ekitaldi-sorta

Aurreko igandean, familia-giroan, Mizpiradi sagardotegira bisitaldi-gidatua egin zuten

Erredakzioa ANDOAIN

Herriko hainbat familia Kale Nagusitik abiatu ziren, Leizotz aldera. Bisitaldi-gidatua egin ostean, Irunberri elkartera itzuli ziren lagunarteko bazkariaz gozatzera. Eguna euskal kara-

kearekin osatu zuten. Datozen egunetan, ekitaldi gehiago egingo dituzte Irunberri elkartearen. Tartean, musika-emanaldiak elkartearen bertan. Abenduaren 2an, bestalde, elkarteko bazkaria egingo dute.



Shanti Hernandez. SHERNAN

Andoaingo Shernan enpresak saria jaso du

Suitzako Genevan 'Luum Awards' saria irabazi du, URA agentziarentzat egindako lanagatik

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Martin Ugalde kalean dagoen Shernan Creative Collective enpresak nazioarteko sari berria eskuratu du. Oraingoan, Luum Awards gizarte eta ingurumen-kausen komunikazioaren nazioarteko jaialdian. Saria Suitzako Genevan eskuratu zuen Santi Hernandez enpresako arduradunak.

"Ez Dago Ura Baino Indartsuagorik" kanpainagatik jaso dute aipatu saria. Eusko Jaur-laritzaren URA agentziaren kanpaina izan zen, Euskadiko hedabide eta iragarbide askotan zabaldu zena.



Ikasleak La Salle Berrozpe ikastetxean. LSB

La Salle Berrozpeko ikasleak, EKOS jaialdiko finalista

Gizarte Ekonomiako Sormen Jaialdiaren lehen edizioan parte hartzen ari dira Andoaingo ikasleak

Erredakzioa ANDOAIN

EKOS Gizarte Ekonomiako Sormen Jaialdiaren lehen ediziooko finala egingo da Kurasaalen, datorren abenduaren 19an. Hamabost urtetik gorako ikasle-taldeek parte hartu dute, eta hogeit finalista sailkatu dira. Horietatik lau talde La Salle Berrozpekoak dira. Hain zuzen, batxilergoko bi talde eta Lanbide-Heziketako beste bi. La Salle Berrozpeko irakasle Maider Lizarralde izan da sustatzaile-lanak egin dituena. Bideo bat egiteko erronka proposatu zien batxilergoko bigarren mailako Administrazio eta Kudeaketa Oinarriak ikasgaiko ikasleei eta Administrazio eta Finantzetako Goi Mailako lehen mailako Ofimatika modulukoiei,

beren gaitasun digitalak hobetzeko eta garapen jasangarriko helburuei (GJHei) buruzko eza-gutzak zabaltzeko. Lizarraldek azaldu duenez, "aurkeztu diren ikasle-talde guztiek oso lan onak egin dituzte. Bage-nekien gaitasun digitala ziurtatuta zegoela, eguneroko jardunean oso integratuta baitute". Lanen gaiei dagokienez, askotariko gaiak jorratu dituzte ikasleek: berdintasuna, inklusioa eta tokiko merkataritzaren sustapena, batik bat. Irakasleak azpimarratu duenez, "denek, eta, batez ere, finalistek, oinarritzko ideiak bideo laburretan islatzen jakin dute, oso zuzeneko mezuen bidez". Hilabete barru emango dute irabazleen berri.



Lagun ugari abiatu zen Kale Nagusitik Mizpiradira. IRUNBERRI



Garazi Redondo, Urnietako AEK euskaltegian. AIURRI

“KORRIKArekin, komunitate baten parte sentitzen dira herritarrak”

GARAZI REDONDO AEK-KO IRAKASLEA ETA HERRIKO KORRIKA-ARDURADUNA

Zazpi probintziak zeharkatuko ditu euskararen aldeko lekukoak datorren udaberrian, baita Urnietako bazterrak ere. Tokiko AEK lasterketa erraldoiari begira dago, jada

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Udaberrian, Euskal Herriko errepideak gurutzatuko ditu, gora-behera, ezker-eskuin, 23. KORRIKAK. “Harro Herri” lemapean, Irun eta Baiona lotuko ditu lasterketa erraldoiak, 2024ko martxoaren 14tik 24ra bitartean. Hori horrela, beroketa-lanetan murgilduta dago, jada, AEK.

Udazkenean prestatzen hasi, udaberrian izango den lasterketa. Horrek erakusten al du ekimenak duen dimentsioa?

Lan handia dakar horrelako egitasmoa bat antolatzeak. Euskal Herri osoa zeharkatzen du KORRIKAK, baita gure eskualdea ere. Hala, antolaketa-lanean murgildu ohi gara, aldiro. Ibil-

bideari dagokionez, esaterako, urtero, ez da leku berdinetik etortzen, ez eta norabide berean joaten ere. Bestalde, herritik herrira aldatu egiten dira tesuingurua eta ezaugarriak. Udaberriko lasterketa da bukaerako argazkia, baina antolaketa-lan handia dago hori baino lehen.

Zu zara Urnietako KORRIKAKo arduraduna.

Hori da, herriko KORRIKA antolatzeaz arduratzen naiz, eragileekin nahiz Urnietako Udarekin elkarlanean. Horrez gain, lasterketarekin zerikusia duten hitzorduen koordinazioaz arduratzen naiz: txikien KORRIKA, Korrika Eguna... Finean dinamizazio- nahiz bitartekaritzalana egiten ditut, gertutik ezagutzen ditugulako Urnietak dituen ezaugarriak.

“Azterketak Euskaraz” plataforma izango da aurtengo omendua.

Ipar Euskal Herriko ekimena da “Azterketak Euskaraz”. Derrigorrezko hezkuntza eta Batxilergoa amaitzean, azterketa bana egiten dute ikasleek, Frantziako Estatuak hala zehaztuta. Frantsesez egin behar izaten dituzte proba horiek, alegia, ez daukate aukerarik beste hizkuntza batean egiteko, ez eta euskaraz ere. Hala, lan nekeza da ibilbide akademiko osoa euskaraz gauzatu ondoren, frantsesez egitea etorkizuna baldintzatuko dizun azterketa garrantzitsua. Azken boladan, pisu handia hartzen ari den borroka da, hizkuntza-eskubideen alde. Orain arte, zatiren bat euskaraz egitea lortu dute; ez osoa, ordea.

Urnietan eta inguruan, besteakoa da errealitatea: euskaraz ikasten dugu eta euskaraz egiten ditugu azterketak. Iparraldean, zoritxarrez, ez da hori kasua, egoera tamalgarria dute bertan. Horrenbestez, eguneroko borroka horri aitortza egin nahi dio KORRIKAK.

2.500 kilometroko bidea egingo du lekukoak datorren urteko udaberrian.

Hala, ezinezkoa litzateke tokiantokian sortzen diren Korrika Batzordeak gabe. Noiz sortuko dira?

Herrietan, KORRIKAREN bueltan osatzen diren taldeak dira Batzordeak. Gehienbat, herriko eragileak izan ohi dira, euskaltzaleak edota ekimenarekiko interesa agertzen dutenak. Dena dela, herritar orori dago irekia bertan egoteko gonbidapena. Lasterketa iritsi arte, herria girotzeko ardura hartzen dute taldeek. Aurreko edizioan, adi-

“HERRITAR ORORI DAGO IREKIA BATZORDEAN EGOTEKO GONBIDAPENA”

bidez, Korrika Eguna antolatzen genuen, tartean, Egape Dantza Taldearekin, Musika Eskolarekin, Etxeberri auzo-elkartearekin... Berriki, prestaketa-lanetan sartu gara. Hortaz, laster edukiko dute bizilagunek Urnietako Korrika Batzordearen berri.

AEK-ko irakasle zaren aldetik, nola bizi duzue langileek eta irakasleek KORRIKA igaro ohi den ikasturtea?

Urte berezia izaten da eskolentzat, askok oso bere sentitzen dutelako KORRIKA. Pozgarria da hori; komunitate txikia osatzen dugu euskaltegiok eta zurraraz jasotzen dugu lasterketa. Joan den astean, adibidez, KORRIKA aurkeztu zen San Telmo Museoa eta, handik gutxira, ikasleak jakinaren gainean zuek ikusi nuen. Badakite badatorrela. Jakin-mina pizten zaie. Gainera, emozioak areagotu egiten dira, hitzordua gerturatu ahala.

Besteak beste, hizkuntzari berari ikusgarritasuna ematen dio KORRIKA ekimenak. Zer ematen die, berri, hizkuntza horretan jarduten direnei?

KORRIKArekin, komunitate baten parte sentitzen dira herritarrak, “hau gurea ere bada”. kontzientzia-ariketa eginda etortzen dira asko gurera; beste asko, ez. Bada, azken horiei talde baten parte sentitzea aukera ematen die, eta, are gehiago, herriko giro euskaltzalearekin nahasten badira.

Besteak beste, azken hilabeteotan, euskarak pairatutako oldarraldi judizialak agerian uzten al du oraindik zenbateko garrantzia duten KORRIKAREN gisako ekimenek?

Jakina. Gauza asko lortu ditugula ematen du, maiz. Eta, bai, noski, horrela izan arren, borroka egunero egin behar da euskalgintzan, bat-batean, kolpea etortzen delako, kasu honetan, epaitegietatik, eta kolokan jartzen dituelako horrek aurretik eskuratutako eskubide horiek. Eskubideak direlako, jakina.

KORRIKAREN pareko ekimenek bultzada ematen diote eguneroko lanari.

“KORRIKAREN PAREKO EKIMENEK BULTZADA EMATEN DIOTE EGUNEROKO LANARI”

'Badon*' operaren aurre-estreinaldia

Badon* proiektuak jaso zuen 2022ko maiatzean Korrika-AEK kultur sorkuntza beka. Aurre-estreinaldia larunbat honetan izango da, Azpeitiko Soreasun. Ondoren, Euskal Herrian barrena eskainiko dute

Intza Trula AZPEITIA

Korrika-AEK kultur sorkuntza beka "aitortza" bat da Ines Osinaga proiektuaren sustatzaile eta aktoreetako baten iritziz: "Duela bi urte hasi ginen Badon*-en ideari bueltaka, eta bekak erakutsi zigun ideia zoro hark bazeukala bere balioa", adierazi du Osinagak.

Ikuskizunaren sorkuntzak bi zati izan ditu; bata, espekulazio fasea, eta, bestea, prototipazio fasea. Euskal Herriko sortzaile ugari bildu ziren lehen fase horretan; Xanti Agirrezabala Badon*-eko antzezlea da horietako bat: "Bakoitzak zituen ideiak partekatu genituen elkartu ginenean, eta gero, hortik

ateratako ondorioekin prototipazio fasera igaro ginen". Jarraian, ikuskizuna taularatzekeo prozesuari ekin zioten. Hiru egonaldi egin dituzte, guztira, prozesuan zehar: Borderline fabrikan (Hendaia, Lapurdi), Uharteko Zentroan (Nafarroa) eta Azala sormen gunean (Lasierra, Araba).

"Opera garaikidea da Badon*, etorkizun utopiko baten sorrerari buruzko gogoetak sustatzea" helburu duena, Agirrezabalaren esanetan. Bost zati nagusi ditu operak: unibertsoaren sorrera eta kosmosa, landareen erreinua, animalien erreinua, gizakien mundua eta mundu espirituala. Hain zuzen, antzerki tradizional

batek dituen ezaugarri horiekin "apurtu" nahi izan dutela dio Agirrezabalak: "Zentzumenak erabilita, bidaia bat proposatzen saiatu gara".

Apirila bitarte, taulagainean

Korrika Kulturalaren ekitaldi nagusia da Badon*, eta 2024ko apirilera arte jardungo dute proiektua hainbat herritan taularatzen. Agirrezabalak aitortu du aurrestreinaldirako "irrikaz" daudela, eta jendearen iritzia jakiteko gogoia ere agertu du. Osinagak, berriz, zera dio: "Badon* fantasia bat da, erditze bat, eztanda bat; Badon*-en denok gara garrantzitsuak, bakar batek ezin baitu ezer egin".



Korrika beka jaso zuen Badon* lanak. KORRIKA



Badon* antzezlaren irudia. UKT


PORNOA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN ESKOLA BAT DA

Eszena pornografikoen % 88,2k emakumeen aurkako indarkeria fisikoa edo hitzezkoa du.

Ez dezagun sexu-heziketa bere eskuetan utzi.

azaroak
25

Emakumeen kontrako Indarkeria Desagerraraziteko Nazioarteko Eguna



900 840 111 24h
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU



lazko elkarretaratzea, San Juan plazan. Larunbat honetakoa eguerdiko 12:00tarako deituta dago. AIURRI

Hitzordu-sorta Urnietan, azaroaren 25ari begira

Urtero lez, azaroaren 25ean, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna izango da. Hala, Urnietako Udalak egitarau zabala antolatu du egunaren bueltan. Besteak beste, elkarretaratzea San Juan plazan

Erredakzioa URNIETA

Zer hartu behar dugu kontuan adineko emakumeen aurkako genero indarkeriazko egoerak saihesteko eta horiei arreta emateko? Nola lagun diezaiekegu biktimei egoera horretatik ateratzeko oztopoak gainditzen? Ziurrenik galdera horien erantzunak hizpide izango dituzte. Ostegun honetan izango da, Le-kaio kultur etxean. "Mujeres mayores y violencia de genero" izenburupean, 18:30ean hasiko da. Hitzaldia gaztelaniaz izango da.

Larunbatean, elkarretaratzea deitu dute, eguerdiko 12:00tan hasita, San Juan plazan. Igande arratsaldean, antzezlanaren iragarri dute Saroben, baina sarrerak



Udal ordekarriak, aurtengo afitxarekin. AIURRI

dagoeneko agortu direla adierazi dute. Emakumeen kontrako indarkeria matxistaren aurkako egitaraua Gaztelekuan amaitu-

ko da, astelehen arratsaldean. Gazteekin lanketa eta jarduera ezberdinak egingo dituztela iragarri dute.



"Menina, soy una puta obra de Velázquez". SAROBE

Zeresana eman duen antzezlanaren

Lodia, foka, balea... Ezizen asko jasotakoaren istorioa gordetzen da Urnietan eskainiko den antzezlanean. Gutako baten edo askoren kasua izan daiteke. Honatx, konpainiak zabaldu duen sinopsia: "Txikitan klasekideak foka deitzen hasi zitzaizkion, balea... Badakizu, umetako kontuak, ezta? Institutura iristean, bere lekua aurkitu zuen, taldeko lodiak. El Pradoko museora egindako txango batean 'Menina' ezizenarekin geratu zen. -'Bai, noski-esan zuen bere artean-, Velazquezen PUTA bat naiz'. Beraz, jaten eta gizentzen hasita, urteekin berak mundua jan eta bere egoa agertoki baten gainean gizendu nahi izan zuen". Pedro Luis Lopez Bellot, Sergio Adillo eta J.P. Cañamero hirukotearena da obraren egiletza, eta antzezle lanetan Nuqui Fernandez ariko da. Galiziarra, hango La Opinion egunkarian antzezlanaren egitera bultzatu zuen asmoaz



Menina antzezlanaren kartela.

hitz egin zuen: "Indarkeria soziala jasan nuen gorputz normatiboa ez edukitzeagatik. Batez ere nerabeen artean gauzak aldatzeko egiten dut lan hau, baita nire semearentzat ere, aske izan daitekeen mundu batera irits dadin".

Emanaldia igandean da, 19:00tan hasita, gaztelaniaz. Sarrerak agortuta daude.



Urnietako
udala



Uxue Loizu eta Amaia Segurola eskalatazaileak, Saroben. AIURRI

Amaia Agirre Gonzalez gogoan hartu zuten, ikasleen aurrean

ESKALADA Zanpatuzek iragarritako bi emanaldiez gain, ikasleentzat beste bat antolatu zuten asteazken goizean

Andoni Urbistondo URNIETA

Zanpatuz mendiko elkartek, Urnietako Udalaren laguntzarekin, Amaia Agirre Urnietako eskalatazailea gogoan hartzeko ekitaldi bikoitza antolatu du azaroaren 22 eta 23 egunetarako, hurrenez hurren. "Abriendo camino" dokumentala izan zen eskaini zuten lehena, asteazken arratsaldean. Ikusmin handia piztu ekitaldi bikoitzak, sarrerak azkar batean banatzen ari baitziren. Iragarritako bi ekitaldi horiez gain, hirugarren bat antolatu zen. Bereziki, Urnietako ikasleei zuzendutakoa.

Lehen pasea, DBHko ikasleen aurrean

Urnietako DBHko ikasleek izan zuten "Abriendo camino" dokumentala ikusiko aukera, asteazken goizean. Bertako bi protagonista hurbildu ziren, gainera, aurkezle-lanak egitera.

Uxue Loizu eta Amaia Segurola eskalatazaileak ikasleen aurrean solasean aritu ziren, bereziki, Amaia Agirre Gonzalezen izena eta izana balioan jartzeko. Era berean, hizketan ari ziren unean, mahai bat zuten aurrean. Eta, bertan, eskalatazaileen artean ohikoa diren erremintak zituzten. Dokumentala amaituta, erraminta horiek erabiltzeko zehaztapenak eskaini zituzten.

Dokumentalak oinarrian du Espainiako federazioak Emakumezkoen Alpinismo Taldeko kirolarietako eskalada-bide berriak irekitzeko egitasmoa, eskalada klasikoaren eta alpinismoaren munduan emakumeen arrastoa uzteko. Iaz, esaterako, Arabiar Peninsulako Wadi Rum desertura espedizioa antolatu zuten.

DBHko ikasleekin aretoa bete zen. 180 gaztetik gora hurbildu zen, beraz, Sarobera.



DBHko ikasleak izan ziren dokumentala ikusten lehenak. AIURRI



Urnietako KE, erasoan. UKE

ESKUBALOA Etxean ariko dira senior mailako mutilak

Bederatzigarren jardunaldian 1. Lurraldeko senior gizonezkoen mailan ari diren bi taldeak etxean ariko dira. Leizaranen partida 16:30ean hasiko da, Allurralden, Ordiziaren aurka. Urnietarena, berriz, igandean, eguerdiko 12:00tan Donibaneren aurka. Garaipenaren bidean sartzeko aukera izango dute bi taldeek. Leizaran taldeak Legazpin galdu zuen (26-25), eta Urnietak berdinketa lortu zuen Ordizian (24-24). Sailkapenean Legazpi dago lehen postuan, Leizaran hirugarrenean eta Urnietak zortzigarren.

SASKIBALOA Ganbarako junior mailako bi taldeak, lidergotzan

Ganbara eta Representaciones Justino dira junior mailako partaidetza ligan ari diren Andoaingo bi taldeak, eta bakoitza bere multzoan lidergotzan da. Lehen multzoan, Ganbarak garaipena eskuratu zuen, Oiarsoren aurkako partidaren (45-53). Sei partidatik bost irabazita, Intxa taldearekin batera lidergotzan dira. Larunbat honetan Allurralden jokatu dute, Astigarragaren aurka. 10:30ean hasiko da partida.

Bigarren multzoan, Representaciones Justinok garaipen argia lortu zuen Allurralden, BKL-ren aurka (65-35). Seitik sei garaipen eskuratu dituen bakarra da. Atzetik segika duen Hernaniren aurka ariko da, larunbat honetan, 18:00tatik aurrera. Hernaniko kiroldegian jokatu da.



Buruntzaldea IKT taldeko kideak, Allurralde kiroldegian. BURUNTZALDEA

Benjamin mailako estrealdia, Allurralde kiroldegian

IGERIKETA 2015ean, 2014an eta 2013an jaiotako haurrentzat lehen jardunaldia izan zen

Buruntzaldea

ANDOAIN

2015ean eta 2014an jaiotako haurrek estilo libreko 50 metrokoa eta bizkar estiloko 6x25 errelebu mistoan parte hartu zuten, beraiantzat estrealdikoa izan zen txapelketan. Hamar haur aritu ziren Andoainen. Lehen txapelketa izanik, urduri zeuden arren, txukun aritu ziren denak, bi estiloetan ederki moldatuz.

Txikiaren ondoren B kategoriako benjaminak aritu ziren. Igerilariak 50 bizkar proban eta 100 edo 200 metro librean aritzeko aukera zuten. Guztira, 2013an jaiotako neska-mutilak barneratzen dituen multzo honetan, gure taldeko lau haur aritu ziren. Laurak benetan ondo aritu ziren, proba guztietan ondo igeri egiten ikusi genituen.



Buruntzaldea IKT taldeko kideak, Allurralde kiroldegian. BURUNTZALDEA

FUTBOLA Berdinketa bana Urnietak eta Euskaldunak

Gizonezkoen Gorengo mailan Urnietak hiruna berdindu zuen

Astigarraga. Euskaldunak, berriz, meritu handiko banako berdinketa lortu zuen Ubitarten. Mondragonek aurreko partida guztiak erreskan irabazi zituen. Andoainen moztu zen joera hori.



Iraganeko Andoain, Secundino Etxeberriaren begietan. ETXEBERRIA

Secundino Etxeberriaren argazkiak, Basteron ikusgai

Argazki zaharrak izanik, eta garai bateko Andoain eta andoainarrak protagonista izanik, urteari amaiera emango dion erakusketak arrakasta handia izango duela aurrikusi daiteke

Erredakzioa ANDOAIN

Badira argazki zaharragoak, baina Etxeberria da ziurrenik herriko lehen argazkilaria. Eta halaxe aurkeztu dute Basteroko erakusketan. Maiztasunez Andoaingo gizarte eta kultur bizitza irudikatu zuen. Denboraren poderioz, irudi horiek guztiak altxor bilakatu dira. Iraganera bidaia egitearen parekoa baita, Etxeberrietaren argazkiei begira jartzea. Erakusketaren berri emateko aurkezpenak ideia horretan sakontzen du: "Baserriak

eta zubiak ahanzturatik berreskuratzen ditugu, antzinako kale eta plazak zeharkatzen ditugu, Andoain ikusten dugu Secundino Etxeberriaren begirada sortzailearen bidez; egunokotasunaren artista honen ofizio ona

ABENDUAREN 29RA BITARTE IKUSGAI IZANGO DA ARGAZKI-ERAKUSKETA

adierazten duten argazkiak, bere herriarekiko, bizilagunekiko eta, batez ere, familiarekiko duen maitasuna nabarmentzen dutenak".

Abenduaren 29ra bitarte ikusgai izango dira argazkiak, Bastero Kulturguneko erakusketaretoan. Argazki zaharrak izanik, eta garai bateko Andoain eta andoainarrak protagonista izanik, urteari amaiera emango dion erakusketak arrakasta handia izango duela aurrikusi daiteke.



Secundino Etxeberria. ETXEBERRIA SENDIA

Sentiberatasun handiko gizona

Secundino Etxeberria Andoaingo XX. mendeko lekukotza grafiko paregabea utzi zigun, argazkilaria gisa. Andoaingo eta andoainarren bizimodua, bizitza publikoa, ospakizunak, janzkerak, ohiturak, etxe eta eraikinetako arkitektura, paisaje naturalak... erretratatu zituen. Gainera, ez zen erretratu hutsetara mugatzen, eta edertasuna bilatu nahian, kalitate bikaineko argazkiak atera ohi zituen, lehen planoari garrantzia emanez.

Nolanahi ere, ez zen argazkilaria huts izatera mugatu; gizon jantzia eta kultur zale eta euskaltzale amorratua zenez, besteak beste, euskarazko antzerkigintzako bultzatzaile nagusia izan zen Andoainen. Antzerki zuzendari eta antzezleri, bai Errepublikako bizialdian (1931-1936) indartsu plazaratu zen Euskal Pizkundearen babesean, eta baita gero, diktadura frankistari aurre eginez 60ko hamarkadan sortu zen euskal mugimenduarekin.

Erakusketara iritsi aurretik bada gogoan hartzeko efemeridea. 2021eko abenduaren 2an, Secundino Etxeberria Fernandez iloba Juan Bautista Etxeberria eta bere familia Andoaingo udalletean izan ziren. Haren esku zegoen osabaren argazki-bilduma, eta argazki haietatik guztietatik sorta handia dohaintzan eman zioten Andoaingo herriari. Udal Artxiboan bildu zuten eta digitalizatuta dago. Dohaintza, lehenik, eta digitalizazioa, ondoren, giltzarri izan dira

erakusketara martxan jartzeko garaian. 2021ean Andoaingo Udalak eskertza-ekitaldia antolatu zuen, eta bertan izan ziren Juan Bautista Etxeberria eta bere senideak.

Moises eta Truchuelo anaiak argazkilarien argazki-bildumak jaso ostean, Udalak Etxeberriaren argazki-bilduma bereganatu zuen. XX. mendeko historia ulertzeko eta gogoan hartzeko argazkiak ezinbestekoak dira. Haien guztien zaintzaz ardurtzen da Udal Artxiboa.

Gora Kaletxiki Bandaren kontzertu berezia

Gora Kaletxiki Bandak Santa Zezilia eguneko kontzertu berezia eskainiko du Santa Krutz elizan larunbat arratsean, eta bertan, bereziki gogoan hartuko dute uztailean hil zen Asier Barrio Basteroko langilea



Gora Kaletxiki Banda, iaz Santa Krutz elizan eskaini zuten kontzertuan. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Uztailearen 27an hil zen Asier Barrio Agirre Basteroko langileari gorazarre egingo diote Gora Kaletxiki Bandak larunbatean emango duen kontzertuan. Antolatzaileek zabaldu duten kartelean, Barrio hitz xumez bezain bihozberaz deskribatu dute.

Alegia, “gauza handiekin ez, baizik eta gertuko gauza txikiekin, bere inguruko bizitza errazten eta atseginagoa egiten saiatu zen herrikide baten oroimenez” prestatu dutela aitormen ekitaldia.

Gora Kaletxiki Bandaren esker ona ez ezik, herriko beste zenbait

elkarteeke ere parte hartu nahi izan dute aitortzan. Senitartekoak kontzertuan izango dira.

Bestalde, Gora Kaletxi bandako musikariek herriko zenbait kultur gile izango dituzte ondoan, gonbidatu gisa; Lebiton Konparttsako kideak, adibidez. Joxe Mari Oiartzabalek zuzenduko

du musika emanaldia, eta Joxe Ramon Berrondo izango da aurkezlea.

Kontzertua larunbat arratsean, 20:00etatik aurrera izango da. Doan da sarrera.

Errepertorioa

- Andoaingo Larramendi Ikastolaren ereserkia (Musika: Joxe Mari Oiartzabal).
- En mi viejo San Juan (Musika: Noel Estrada; moldaketak: Joxe Mari Oiartzabal; bakarlaria: Mikel Arredondo).
- Pie Jesu (Musika: Andrew Loyd Webber; moldaketak: Joxe Mari Oiartzabal; bakarlariak: Aingeru Zabala eta Xabier Ibarguren).
- Buruntza (Musika: JM Oiartzabal; hitzak: Joxe Ramon Berrondo).
- Iñaki Cia Olaskoaga (Musika: Joxe Mari Oiartzabal; bakarlaria: Iñaki Cia Olaskoaga).
- El Cumbanchero (Musika: R. Hernandez; moldaketak: Joxe Mari Oiartzabal).
- Otso Beltza (Doinu herrikoia; moldaketa: Joxe Mari Oiartzabal).
- Santa Zezilia (Musika: Joxe Mari Oiartzabal; hitzak: Joxe Ramon Berrondo).

**KONTZERTUA
LARUNBAT ILUNTZEAN
IZANGO DA SANTA
KRUTZ ELIZAN,
20:00TAN HASITA**



Axier Barrio Agirre. BARRIO

Axier Barrio gogoan hartuko dute

Uztailearen amaieran Bastero Kulturgunean lanean aritzen zen Axier Barrio Agirre andoaindarra zendu zen. Zorigaitzoko albisteak berehalako erreakzioa sortu zuen herriko gizarte eta kultur bizitzan. Oso ezaguna baitzen herrian, eta baita kultur arloko taldeen artean ere. Eragin enpresako langilea bazen ere, Bastero Kulturgunean egiten zuen lan-jarduera handiena. Gora Kaletxiki Bandak omenalditxo eskainiko dio, kontzertuan.

Udal Musika Eskolako Bandaren emanaldia

Andoaingo Udal Musika Eskolako Bandak Santa Zezilia eguneko kontzertua eskaini zuen, "Giroak" izenekoa. Bastero Kulturguneko auditorioan Jacob de Haan, Eric Withacre, Jesus Guridi, Ferrer Ferran eta Terry Kenny konposatzaileen obrak eskaini zituzten. Pieza horiek ikusgai daude Aiurri.eus webgunean Ikusleentzat gozamina izan zen, eta, horregatik, txalo-zaparrada jaso zuten.



HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 23

ANDOAIN Greba feminista
Agerraldi jendetsua egingo dute.
18:30, Plaza Morea.

ANDOAIN Erakusketa
'Secundino Etxeberria:
Argazkilariaren Sentikortasuna'.
Abenduaren 29ra bitarte, zabalik.
Bastero, erakusketa-gela.

ANDOAIN Informazio-puntua
Partaidetzako bigarren fasea
martxan dago. Herritarrek botoa
eman dezakete, 14 aukeren artean.
17:00-19:00, Goikoplaza.

ANDOAIN Kontzertua
Irunberri elkartearen urteurrena.
19:00, Pintxopotea.
20:00, AS04 hip hop taldea.
Irunberri.

URNIETA Hitzaldia
"Osasun mentala: zeure burua
ulertzen ikasi".
17:30, Kiroldegia, Urnieta.

URNIETA Hitzaldia
Azaroaren 25ari loturiko ekitaldia:
"Mujeres mayores y violencia de
genero", izenburukoa. Gaztelaniaz.
18:30, Lekaio.

URNIETA Dokumentala
Amaia Agirre Gonzalez gogoan,
Zanpatuzek antolatuta.
19:30, Sarobe.

OSTIRALA 24

ANDOAIN Yoga familiar
Andoaingo Euskara lansailaren
eskutik, 6-7 urteko haurrak dituzten
familientzat, Eider Hidalgo gidatua.
17:00. Izen-ematea: 943 300 831.
Kulunka yoga.

ANDOAIN Tailerra
Azaroaren 25ari loturiko egitaraua:
Txapa lantegia.
17:30, Gazte Lokala.

ANDOAIN Bideoa eta solasaldia
Azaroaren 25ari loturiko egitaraua:
"Haurrak eta genero indarkeria"
bideo emankizuna. Ondoren,
solasaldia haurrekin eta familiekin.
18:15, Ludoteka.



ANDOAIN, URNIETA Emakumeenganako indarkeriaren aurkako eguna

Elkarretaratzeak bi udalerrietan. Andoainen, gainera, mural margoketa bana iragarrita daude Ludotekan (17:30) eta Gazte Lokalean (17:30).

Andoain: Mobilizazioa. 12:00, Goikoplaza.
Urnieta: Elkarretaratzea. 12:00, San Juan plaza.
Azaroak 25, larunbata.

ANDOAIN Antzerkia
"Kortxoaren dilema", Tartean teatro
konpainiaren eskutik. Mireia
Gabilondok zuzenduta, Patxo
Telleria eta Mikel Martinez aktoreen
parte hartzearekin.
20:00, Bastero.

ANDOAIN Ospakizuna
Irunberri elkartearen urteurrena.
19:00, Elkarretaratzea. Zumea
plaza.
20:00-22:00, Talo-afaria.
20:00, Black Smoke taldea.
Irunberri.

ANDOAIN Urteurrena
Gaztetxearen urteurrena: DJ Bad
sound sister, Transpoesia, ..
19:30 etik aurrera, Gaztetxea.

LARUNBATA 25

ANDOAIN Urteurrena
Irunberri elkartearen urteurrena.
12:00, Kantu-kalejira.
Irunberri.

IGANDEA 26

URNIETA Antzerkia
Azaroaren 25ari loturiko ekitaldia:
"Menina, soy una puta obra de
Velázquez".
19:00, Sarobe.

ASTELEHENA 27

URNIETA Jarduerak
Azaroaren 25ari loturiko ekitaldia:
Emakumeen kontrako indarkeria
matxistaren aurkako Kahootak eta
horma morearen lanketa.
17:00, Gaztelekua.

OSTEGUNA 30

ANDOAIN, URNIETA Greba
Mugimendu feministak antolatuta,
Greba Orokorreko deialdia.
Egun osoan zehar.


OSTIRALA 1

ANDOAIN Bertso afaria
Sebastian Lizaso, Nerea Elustondo.
35 euro.
20:30, Santa Krutz elkarte.

LARUNBATA 2

ANDOAIN Ospakizuna
Irunberri elkartearen urteurrena.
12:30 Bermuta.
13:30 Urteurreneko ekitaldia.
14:30 Urteurreneko bazkaria.
18:00 Arrixku bertsio taldea.
19:30 Malkogariyak.
Irunberri.

ZINEMA




ANDOAIN

BASTERO

La ermita
Lar, 25. 19:30,
22:00.
Ig, 26. 19:30.
Astl, 27. 19:30,
22:00.

El osito Boom
Lar, 25. 17:00.
Ig, 26. 17:00.



SINOPSIS



La ermita

Zuzendaria: Carlota Pereda. **Aktoreak:** Belen Rueda, Maia Zaitegi, Laura Galan, Anastasia Russo, Loreto Mauleon, Jon Olivares, Josean Bengoetxea, Elena Irureta, Nagore Aranburu, Eric Probanza, Amets Otxoa, Gaizka Ugarte, Ane Pikaza, Iñaki Beraetxe, Ainhoa Aierbe.
Herrialdea: Espainia (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania.
Generoa: Fantastikoa, Drama. **Iraupena:** 103 min.

Euskal aktore ugari filman

Emmak (Maia Zaitegi) bere herriko ermitan mendeko harrapatuta daramatzen neskato baten espirituarekin komunikatzen ikasi nahi du. Saiatu da Carol (Belen Rueda)

konbentzitzen, medium faltsua, mamuekin hitz egiten erakuts diezaion. Carolek babesten ez badu, Emmaren bizitza arriskuan egongo da. Euskal aktore ugari ageri dira, filmean.



andoainDARRA
euskaraz

Egunean behin, partida, eta astean behin, saria

Zortzigarren astean murgildu da Egunean Behin lehiaketa ezaguna. Aiurri taldean parte hartzeak saria dakar

Erredakzioa ANDOAIN

'Zulu', 'Mariluz', 'Garbiñe', 'Xomo', 'Marta', 'Jota' eta 'Arixen' dira Egunean Behin 13. denboraldiko lehen zazpi asteko saridunak. Izan ere, Aiurri taldean parte-hartzeak saria dakar. Aspilla

baserriko saski ederra zozkatzen ari gara aste osoko partidak jokatzen dituztenen artean. Ehunka lehiakide elkartzen ditu Aiurri taldeak. Saridunak Andoingo, Urnietako eta Aiztondoko jokalaria dira.



'Jota', seigarren sariduna. AIURRI



Martaren aitak jaso zuen saskia. AIURRI



'Xomo', laugarren sariduna. AIURRI



lazko sari banaketa ekitaldia. AIURRI

Rikardo Arregi kazetaritza-sarien ekitaldia, hilaren 29an

Komunikazioan eta kazetaritzan Euskal Herrian banatzen den sari garrantzitsua da

Erredakzioa ANDOAIN

Andoingo kazetariaren izena daraman sariketako kazetaritza eta komunikazio prestua, kalitatekoa eta garaian garaiko beharrezanetara egokitua saritu nahi du. Hori du xede nagusi. Andoingo Udalak antolatuta, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntzaz, erreferente bilakatu da sektorean. Begirada, beraz, datorren azaroaren 29ko ekitaldira jarrita dago. Iluntzeko 19:00tan hasiko da sari-banaketa ekitaldia, Bastero Kulturguneko auditorioan.

Azken urteotan, bi sari nagusi banatu dira. Bata, komunikazioari dagokiona. Bestea, kazetaritzari loturikoa. Dagoeneko zortzi finalisten berri eman dute, eta Basteron saridunak jakinaraziko dituzte. Kazetaritza estiloak alderatzen hasita, podcastak nabarmendu dituzte epaimahai-kideek. Honako hauexek dira: Eneko Bidegain, Itxaro Borda, Aingeru Epaltza, Miren Gabantxo, Pantxika Maitia eta Ion Muñoa. Idazkari Arantza Agüedo Andoingo Udaleko euskara teknikaria izan da. Mahaiburu, berriz, Marta Lasa zinegotzia.

MERKATU TXIKIA

ALOKATU

Garaje marra alokatuta hartu nahiko nuke Andoingo Ondarreta auzo inguruan. 660 122 632.

ODOL-EMAILEAK

ANDOAIN

Azaroak 30, osteguna.

URNIETA, GAZTELEKUA
Hitzordua hartzeko: 943 00 78 85.

EAJ-PNVren mozioa, zaintza-eredu berrien harira

Andoingo jeltzaleek azaroko plenora eramango dute beren proposamena

Erredakzioa ANDOAIN

Horrela azaldu du Imanol Goenaga Andoingo jeltzaleen buruak, prentsara zabalduetako oharrean: "Zainketak eztabaida publikoaren lehen lerroan daude, eta EAJ-PNVk zaintza-eredu berriaren ardatzak finkatzen dituen mozioa aurkeztu du azaroko udalbatzan, eztabaidatu eta onartzeko: sendoa, eraldatzailea, feminista eta komunitarioa den euskal zaintza eredu baten alde egiten dugu, adostasunak eta akordio zabalak lortzeko gaia izango dena; zaintza-eredu gainera herri-itun berri bat lortzera eramango gaituzten zutabeak".

EAJ-PNVk, "jarrera ireki batetik, akordioak lortzeko benetako lankidetzaren defendatzen du, eta uste du gaia funtsezkoa dela ados jartzeko, Euskadik, Gipuzkoak eta Andoainek aurrera egiten jarrai dezaten. Andoaindarrok ere eragile konprometituak izan behar dugu zaintza ereduaren eraldaketan".

Mozioak zortzi puntu jasotzen ditu, besteak beste, zainketen profesionalizazioa edota etxeko zaintza lehenesten dutenak. "Herri itun handi batera iristeko gure eskua luzatzen dugu", adierazi dute ohar berean.

ESKELA

Luis Mari
BERAZA
OLABARRIETA



*Bidaia on,
osaba Luismari*

Maite zaitugu

Berazatar ilobak



Andoainen, 2023ko azaroaren 21ean

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

- Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 euro + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 euro + BEZ /
- Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 euro + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 euro + BEZ

**Eskelak
Aiurriin:
90 euro**



Lorena Mujika irakaslea, Maryam Sbaghi, Haizea Moreno, Oihane Trejo eta Lara Garcia ikasleekin. AIURRI

"Ibili Andoain" egitasmoko zaintzaileak

Leizaran Intitutuan Arreta izeneko erdiko zikloa ikasten ari diren ikasleek, asteazkenero, adineko jendea elkartzea eta elkarrekin jarduera fisiko osasungarri bat egitea helburu dituen "Ibili Andoain" ekimenean parte hartzen dute, laguntzaile lanetan



Azaroaren 15ean Bastero Kulturguneko erakusketa-aretoan izan ziren, Itxaso Mendiluzeren azalpenak entzuteko. AIURRI



Goikoplazan laguntzaile lanetan ari dira. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Aldi berean, Eguneko Zentrura ere hurbiltzen dira egunero, gizarte lanak egitera bertako erabiltzaileekin.

Arreta izeneko ikasketak mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta eskaintzeko teknika formatza du helburu, eta bi urteko iraupena du. Ikasketa gaitzuz gero, bi aukera gertzen zaizkio ikasleari batik bat, Gizarteratzea izeneko goi mailako ikasketekin segi Leizaran Institutuan (Gipuzkoan aitzindaria da titulazio hori eskaintzen), edo eta, lan merkatuan murgildu. Bigarren hautamen horrentzat, gizarte laguntzarekin lotutako lanpostuak (Zahar egoitzak, Eguneko zentroak, Etxez etxeko laguntza zerbitzuak...) dira irtenbide ohikoak.

Lorena Mujika da Arreta erdi mailako zikloaren arduraduna, eta adierazi duenez, ikasleak irailaz geroztik ari dira, asteazkenero, hitzorduarekin bat egiten. "Azken bost urtetan, Donostian Easo Institutuan jardun dut ikasketa horrekin, irakasle gisa. 25 ikasle banako bi talde ziren, eta ez zen lan samurra gelan ikasitakoa praktikara eramatea. Aurten Andoainean, Arre-

ta erdi zikloa abian jarri da, eta gelan hainbeste ikasle ez direnez, aukerak erruz zabaldu zaizkigu. Horrela, hasieratik planteatu nien ikasleei, gelan teoriarik ikasitako hori kaleko lanarekin bateragarri behar genuela egin, aukera paregabea zeukatela beraien formakuntza errealitatean gara zezaten. Udaleko gizarte zerbitzuen onespina jaso, eta horrelaxe hasi gara Eguneko Zentroan eta "Ibili Andoain" ekimenean parte hartzen".

Behin aurreneko errezeleak gaitzuz, ikasleak oso gustura dabiltzala aitortu du Mujikak. "Lotsa sentitzen zuten hasieran, ez zekiten nola moldatuko ziren adineko jendearekin. Baina abian jarri, eta agudo uxatu zituzten zalantzak eta ustezko ezinak. Egunez egun harremanak sakontzen ari dira adinekoekin, konplizitatea sortzen ari da elkarrekin artean, eta pozik dabilta".

Arreta erdi mailako zikloko modulu edo ikasgaiak dira, besteak beste, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen ezaugarriak eta premiak, lehen laguntza, komunikaziorako laguntza edo osasun arreta, eta asteazkenero, horietan ederki ari direla sakontzen baiezta du Mujikak.

TORNULARIAK

Lehen mailako ofizialak behar ditugu
CNC tornoan lan egiteko

Interesatuak bere CVa ondorengo helbidera bidali beharko dute.

Talleres Mitxelena, Koop,
Eziago poligonoa 21, 20120 Hernani
2023/12/01 baino lehen

info@talleresmitxelena.eus

mitxelena
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING